

EH. Atzo aurkeztu zuen Gipuzkoako zerrenda eta gaur Arabakoa aurkeztuko du EHk

Otegi: «Ezker abertzalea da giltza neofrankistak porrotera eramateko»

Euskal Herri osorako proiektua garatzeko konpromisoa azaldu dute Gipuzkoako hautagaiek

Axun Erzibengoa | DONOSTIA

Euskal Herritarrok alderdiak datorren maiatzaren 13an Euskal Autonomia Erkidegoan egingo diren hauteskundeetarako Gipuzkoako hautagaien zerrenda aurkeztu zuen atzo Donostian. Bizkaiko hautagaiak joan den igandean aurkeztu zituzten eta Arabakoen aurkezpenean, berriz, gaur egingo dute. Gipuzkoako zerrendaburua Arnaldo Otegi izango da; Aritz Zubimendi batzarkidea eta Haikako kidea da bigarrena, eta hirugarrena Joseba Alvarez Mahai Nazionalako kidea. Laugarren tokian Aiora Epelde Haikako kidea dago, egun espetxeratuta dagoena, eta bosgarrenean Jon Salaberria legebiltzarkidea.

Arnaldo Otegi adierazi zuenez Euskal Herriaren etorkizuna eraikitzeak giltza ezker abertzaleak du. Aurkezpenean Donostiako Goikoa Jauregian egin zen, garai batean goikoa militarra izan zen tokian, eta Otegi datu hori aipatu zuen: «Herri honek burua makurtu ez duela, gaur hemen espainiar armada egon beharrean euskal independentistak gaude, askatasuna, bakea eta burujabetza nahi dugunak». Hala, «espainiar neofrankistek aurre egiteko tresna eraginkorrena ezker abertzalea» jo zuen, ezker abertzalearen proposamenak norabide bakarra baina bi zentzu planteatzen dituela esanez: «batetik estatuari aurre egitea duintasunaren frontearen militarizazio, eta bestetik Euskal Herrian marko demokratiko bat eraikitze proposamen zehatz bat izatea».

Maiatzaren 13an EHri sostengua emateko eskatu zuen, «gu baikara giltza neofrankistak beste porrot historiko bateramateko».



GARI GARAIALDE

EHko hautagaiak atzo Donostiako Goikoa jauregian eginiko aurkezpenean.

ZERRENDAK

ARABA

1. Antton Morcillo Torres
2. Rakek Peña Somavilla
3. Pablo Gorostiaga Gonzalez
4. Bittor Goñi Martinez
5. Txotxe Andueza Ortega
6. Hasier Arraiz Barbadillo
7. Maite Diaz de Heredia Ruiz de Arbulo
8. Iñaki Olalde Arana
9. Jon Iñaki Usategi Diaz de Ojalora
10. Esti Besa Sanchez
11. Lurdes Uribarri Larrañaga
12. Aitor Garate Pagaldai
13. Marisa Diaz de Arkaia Landa
14. Kike Zurutuza Odriozola
15. Aitziber Perez de Karkamo Herran
16. Xabier Elorriaga Preciado
17. Amparo Las Heras Gainzarain
18. Lali Aramendi Bilbao
19. Manu Muñoz Morentin
20. Josefa Mendia Fernandez
21. Nekane Jurado Perez
22. Patxi Marta Blanco
23. Arritxu Santamaria Bidasoro
24. Gustavo Fernandez Billate
25. Kepa Gordejuela Kortazar

BIZKAIA

1. Jone Goirizelaia Ordorika
2. Josu Urrutikoetxea Bengoetxea
3. Karmelo Landa Mendibe
4. Olatz Dañobeitia Ceballos
5. Jon Idigoras Gerrikabeitia
6. Carlos Rodriguez Gonzalez
7. Esther Agirre Ruiz
8. Joana Etxebarria Akaiturri
9. Itziar Lopategi Basterretxea
10. Tasio Erkizia Almandoz
11. Eider Casanova Alonso
12. Ziortza Lariz Bustindui
13. Julio Garcia de la Torre Unibaso
14. Gema Mendieta Zelaia
15. Julen Zabalo Bilbao
16. Maite Barreña Ocea
17. Miren Edurne Ugarte Nuñez
18. Santiago Barcena Ruiz
19. Murtxe Gomez Llanos
20. Xabier Arriaga Goirizelaia
21. Izaskun Guarrotxena Martinez
22. Loren Arkotxa Meabe
23. Gurutze Olagorta Arana
24. Sabin del Bado Gonzalez
25. Jabier Salutregi Mentxaka

GIPUZKOA

1. Arnaldo Otegi Mondragon
2. Aritz Zubimendi Izaga
3. Joseba Alvarez Forcada
4. Aiora Epelde Agirre
5. Ion Salaberria Sansinenea
6. Mireia Unamuno Unzurrunzaga
7. Joseba Permach Martin
8. Rafa Diez Usabiaga
9. Karnele Aierbe Mujika
10. Iñigo Iruin Sanz
11. Alicia Stürzte Mencia
12. Aurkene Astibia Legorburu
13. Jesus Maria Kongil Infantes
14. Ainhoa Etxaide Amorrortu
15. Fermin Muguruza Ugarte
16. Maria Aranzazu Manterola Aizpurua
17. Xabier Zubizarreta Lasagabaster
18. Arantxa Arruti Odriozola
19. Jose Antonio Etxeberria Arbelaitz
20. Miren Arantzazu Erasun Urzelaieta
21. Maria Isabel Arrieta Galarra
22. Joxe Auxtin Arrieta Ugartetxea
23. Miren Elixabete Laburu Labaka
24. Idoia Eskitxabel Berasategi
25. Iker Sarriegi Etxabe

EAJ

ETA bukatu arte euskal gatazkaz ez hitz egitea baztertu du Arzalluzek

Erredakzioa | DONOSTIA

Xabier Arzalluz EAJko presidentek ez du uste ETaren jardura amaitu arte utzi behar denik euskal gatazkari buruzko eztabaida. Horrela adierazi zuen atzo Radio Euskadi irratiari eginiko adierazpenetan. Gogoratu, aste honetan bertan Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakari ohiak Madrilen eginiko hitzaldi batean ideia hori defenditu zuela.

Indarkeriak zenbat iraungo duen galdetu zuen Arzalluzek, «zeren baitan dago irautea? ETaren esku dago edo baita ere espainiar boterearen esku, indarkeriak jarrai dezan komenigarria izan daitekeelako beraientzat?». EAJko buruak onartu zuen, hala ere, indarkeriak jarraitzen duen bitartean aldarrikapen politikoak planteatzeko tokirik ez dela izango. «Praktikan ezinezkoa izango da, baina ez diot gure planteamendu politikoari uko egin nahi batzuk hiltzen dutelako eta besteei, agian, hori ongi datorkielako».

Maiatzaren 13ko hauteskundeetara Arzalluzek azaldu zuen, PPK eta PSE-EEk zaila dutela beraiek nahi duten gehiengo lortzea. PSE-EErekin akordio aukeraz hitz egitea baztertu zuen, «orain ez da garaia». «Hilaren 13a arte inork ez du serio hitz egingo. Ondoren, noski hitz egin beharko da, baina bakoitzak zer garen jakingo dugu ordurako» adierazi zuen.

Euskal nortasun agiriari buruz izan nahiko lukeela adierazi zuen, «baina seriotasun eta fundamentuz». «Noizbait izango dugu» erantsi zuen Arzalluzek, baina orain erabiltzearen aurka agertu zen.

Tekno
www.tekno2000.com

ORDENAGAILUA
PT III 733
64 MB RAM
10 GB HD
MULTIMEDIA

ETA ORAIN BERRIA
WINDOWS MILENIUM
WIN 98TIK
EGUNERATUA

SALMENTA
PREZIOA:

134.900

8.500

BEZa ez dago sartuta / Zerbitzu Tekniko Propioa

Azpeitia kalea, 7 / 20010 - Donostia
Tel.: 943 44 50 30 / 943 47 11 83 - Faxa: 943 46 87 47
E-mail: tekno2000@tekno2000.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

MEREZIMENDU LEHIAKETARAKO DEIA BERRITZEGUNE, ISEI ETA CEIDA HEZKUNTZARI LAGUNTZEKO ZERBITZUETAKO LANPOSTUAK BETETZEKO.

Hezkuntza sailburuaren 2001eko apirilaren 2ko Aginduan (apirilak 6ko EHAAn), merezimendu lehiaketarako deia egiten da Berritzegune, ISEI eta CEIDA hezkuntzari laguntzeko zerbitzuetako lanpostuak betetzeko. Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute EAEko unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioak.

Eskaerak apirilaren 28rako aurkeztu behar dira Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan.

Informazio gehiago nahi izanez gero: www1.hezkuntza.ej-gv.net

HEZKUNTZA BERRITZATZEKO ZUZENDARITZA.

marketing arduraduna

Behar du Durangaldeko komunikazio enpresa batek

ESKATZEN DA

Arlo komertzialean
esperientzia eta
euskalduna izatea

ESKAITZEN DA

Lan kontratua
Soldata finkoa

Curriculumak apirilaren 27a
baino lehen bidali
Durangoko 243 posta kutxara
hiruzubi@teletel.es